

SARRERA: BASOETAKO EKOLOGIA

➤ **Basoa:**

- Zuhaitzez edo zuhaixkaz jantzitako lur-eremua da.
- Eremu batean %60-70 zuhaitza denean esango dugu basoa dela.

-Hortik gora oihana

➤ Zuhaitza:

- Zurezko landare iraunkorra
- Altuera aldakorrekoa, sarritan 6mtik gora
- Enborra lurretik urruti samar adarkatu
- Especie bakoitzak bereizgarria den adaburua du

➤ Zuhaixka :

- Zurezko landare iraunkorra
- 6 mtik behera
- Lurretik gertu adarkatu, ez du zurtoin nagusirik

-Ingurumeneko faktoreak (abiotiko eta biotikoek) eraldatu egiten du berezko (gene) egitura.

-Orokorrean hotz handia dagoen lekuetan ez da zuhaitzik hazten.

➤ **Ekologia:**

-Organismo bizien eta ingurumenaren arteko harremanak aztertzen dituen zientzia da.

➤ **Basoetako ekologia:**

-Basoetako organismo bizien eta ingurumenaren arteko harremanak aztertzen dituen zientzia da.

-Hala ere, zaila da gaur egun gizakiak eraldatu gabeko basoak topatzea.

➤ **Nolako basoak?**

Zuhaitza:

-Mota nagusiak definitzen du baso mota.

Altuera:

-Oso desberdineko zuhaitzak izan daitezke baina 60 m \approx

-Latitudeak eta lurzoruak zuhaitzen tamaina baldintzatzen dute

Ekoizpena

-Handia (batez ere tropikoan) edo/eta iraunkorra (sekuoiak)

Hosto mota:

-Hosto iraunkorrekoak edo/eta hosto erorkorrekoak

-Iparraldean hosto iraunkorreko zuhaitzak dira ugariagoak, hau hosto tamainagatik da

-H.erorkorrak \rightarrow A/B \uparrow (T aldaketa handiak) \rightarrow 30 egunekin 10° Ctik gora FTS egin

-H.iraunkorrekoak \rightarrow A/B \downarrow \rightarrow 120 egunekin 10° Ctik gora FTS egin

Lurzoru emankorra:

- Hau gabe gutxi hazten dira.
- Partikulen tamaina garrantzitsua da.
- Lurzoru buzintzuetan (pikor txikiak) putzuak sortzen dira, gaizki iragazi
- Lurzoru areatsuetan (pikor handiak) berehala iragazi
- Materia organikoa erabiltzen da gutxiago edo gehiago iragazteko (poroak sortarazi), buztinarekin nahastuta hobeto iragazi eta arearekin okerrago

Ura:

- Garrantzitsua da edozein ekosistemetan


Temperatura:

- Ur purua -40° Ctan izozten da, horregatik iparraldeko zuhaitzek ez dute asko edukitzen.
- Izozten bada guztiz hondatuko baita.

➤ **Ezaugarriak:**

Basoen sailkapenerako ondokoak erabiltzen dira:

- Egitura: Altuera (geruza kopurua) eta biomasa (aereoak, lurrazpikoa) → eragina du nola hartzen duen argia, airearen mugimenduak, ...
- Bizidunak: Dagoen bizidun kopuruagatik
- Funtzioak:
 - Ekoizpena: Aereoak (datu gehien) edo lurrazpikoa → biomasan neurtu
 - Mantenugaien erabilpena: [Mantenugai]/hosto → mantenugai batzuk askoz azkarrago berreskuratzen dira (P) lurzorutik, beste batzuk aldiz ez (N), beraz, hostoak erori baino lehen berreskuratzen saiatzen da.
 - Ebapotranspirazioa: Ze ur kantitate lurruntzen den
- Banaketa





➤ **Asaldura:**

Hauk baldintzatzen dute basoaren egoera:

- Gizakiaren eragina: Ia ez dago baso naturalik
- Kutsadura: Euri azidoa, batez ere herrialde industrializatueta
- Aldaketa klimatikoa: [Prezipitazioa]↓ landareak estresatuagoa, errazago gaixotu

- Suteak: Sistema batzuetan barneko asaldura kontsideratzen dira, hemen ez baina Mediterraneoan bai.
- Izurriteak: Oso garrantzitsuak
- **Ekosistema lehortar mota nagusiak**:
 - Oihan tropikalak
 - Sabana
 - Baso epelak
 - Belardi eta zuhaixka-lurralde epelak
 - Taiga
 - Tundra
 - Basamortua



Polar ice	Taiga (coniferous forest belt)	Tropical rain forest	Savanna, tropical woodlands, and thorn forests
Tundra	Temperate forest	Chaparral	Desert
Mountain zones	Tropical deciduous forest	Grassland (steppe)	

1.GAIA: MUNDUKO EKOSISTEMA MOTA NAGUSIEN EGITURA ETA BANAKETA

➤ Sarrera:

- Lurzoru eta landarearen egitura baldintzatzen dituzten faktoreak.
- Klima-gradienteari jarraituz, joera orokorrak deskribatuko ditugu.
- Ekosistemek Lurrean duten egitura eta funtzioen banaketa azalduko da.

➤ Ekosistema mota nagusiak:


- Kontinentetako landare eta animalien komunitate homogeenak, ezaugarri klimatiko eremuetan eratzen direnak.

1. Klima-gradienteak:

- Maila orokorrean, klima da faktore garrantzitsua lurzoru eta landarearen egitura garatzeko.
- Gradienteak: Tropikala-Epela-Polarra
- Klimaren faktoreak:
 - Prezipitazioa: Urtean $200 \text{ l}\cdot\text{m}^{-2}\cdot\text{urte}^{-1}$ (100) ; $4500 \text{ l}\cdot\text{m}^{-2}\cdot\text{urte}^{-1}$
 - Tenperatura: Urteko bataz bestekoa -15°C ; 30°C (40°C)
- Klimak erreakzio kimiko eta biologikoen tasak mugatzen ditu
- Tenperatura desberdinak deskonposaketa-tasa desberdinak eragiten ditu.
- Hezetasunak ere eragiten du, izan ere gero eta ur gehiegi badago deskonposaketa gutxitu egingo da, mantenugaiak ez dira askatuko landareentzat.

Biomak:

- Klima berdina dagoen lekuan agertzen den landaredi homogenea da.
- Tenperatura eta prezipitazioen konbinaketarekin bioma desberdinak sortzen dira.
- Nahiz eta tenperatura berdina izan urteko prezipitazioa desberdina bada 2




leketan, bioma desberdinak agertzen dira (eta alderantziz).
-Gianera iparralde/hegoalde egon aldea egongo da, baita itsas korronteen ondorioz.

2. Lurzoruetako egitura:

Ezaugarri garrantzitsuenak:

- Geruzen sakonera
- Geruzen konposaketa kimikoa (klimaren eta geologiaren arteko elkarreraginagatik agertzen dira)
- Hau baldintzatuko duten faktoreak:
 - Arroka mota
 - Landare mota
 - Denbora
 - Tenperatura
 - Ura
 - Paisaiaren forma (kokalekua garrantzitsua da)

Lurzoruko geruzak:



O geruza: geruza organikoa, mota desberdinak egon daitezke, orbela, partikula oso txikiak (ez desberdintzatu ze hosto mota den) edo humusa.

A geruza: Lurzoru mineralaren goiko geruza da. Materia organikoa eta minerala nahasten direnean (askotan oso iluna).

E geruza: Geruza minerala da, eta batez ere garbiketa-prozesuak baldintzatzen du haren konposaketa kimikoa. Astiro-astiro lixibiatzen da, materiala disolbatu eta azpiko geruzetara pasatu zen da.

B geruza: Geruza minerala, eta goiko geruzetatik jaisten diren materialek osatzen dute. Kolore desberdinak segun ze mineral prezipitatu.

C geruza: Sorrerako materiala da, arroka apurtua da (aktibitate biologikoa egon daiteke)

-Gero eta denbora gehiago egon, gehiago metatuko da eta ondorioz O geruza A bihurtuko da eta beste O geruza bat sortuko da.

-Batuetan ur asko dagoen lekuetan mineralek gora egiten dute, lurzoru bereziak osatuz.

3. Lurzoruetako prozesuak:

- Baldintzen arabera 5 prozesu eman daitezke.
- Euria, tenperatura, lurzoria basiko/azido den arabera.
- Prozesu hauen arabera lurzoria kolore desberdina izango du.

a) Laterizazioa (Tropikoetan):


-Laterizazioa: Beroaren eta hezetanaren ondorioz, silikatoak burdina eta aluminioaren oxidoak baino arinago garbitzen dira.

-E geruza aluminio eta burdinen oxidoak buztinekin metatzen dira, aberastuz.

-Prozesu honek tropikoetako lurzoria buztin gorriak sorraraziz.


-B geruza ez da eratzten.

-Silikatoak askatu, geruzetan behera joaten dira eta erreketan galtzen dira.



b) Melanizazioa (Klima epeletan):

- Melanizazioa: Buztinak garbitu egiten dira.
- A geruza oso nahastua dago lurzoruko animalien jardueragatik, eta materia organikoz aberatsa da.
- A eta B-ren arteko mugak ez dira bereizten.
- Lurzoru ez oso azidotan, ehundura buztintsua.
- Lurzoru ilunak.
- Buztinak galdu batez ere.



c) Podzolizazioa (Klima hotz eta hezeetan):

- Laterizazioaren kontrakoa da.
- Podzolizazioa: burdinaren, aluminioaren eta materia organikoaren garbiketa da.
- E geruza osatzen da (grisa)
- Klima hotzetan eta hezeetan, eta baldintza azidotan gertatzen da batez ere.
- B geruza E geruzatik garbitutakoa aberastu (herdoil kolorea)
- O geruzan gertatzen da, eta geruza horretako azido organikoen garbiketak podzolizazio-prozesua emendatzen du.



d) Gleizazioa (Klima oso hotzetan eta ur drainatze txarra):

- Goiko geruzetan materia organiko asko metatzen dira (O_2 ez \rightarrow ez deskonposaketarik)
- Mineralizazio geruzetan ura dagoenez burdina erreduzitzen da eta urdin grisa kolorea daukate.
- Ur asko badago ezin da ia airerik egon, beraz ez dago deskonposaketarik.



e) Kaltzifikazioa/gazitzea (Klima idorretan):

- Kaltzifikazioa/gazitzea: Oso disolbagarriak diren konposatuak, lurzoruaren azalean metatzen dira.
- Uraren mugimendua minimoa da. Lurrazalean metatzen dira mineralak, esate baterako kaltzio karbonatoa, sodio kloruroa eta beste gatz batzuk, lurzoruaren azalean metatzen dira.



4. Ekosistema moten ezaugarriak eta banaketa egoera:

- 1.-Oihan tropikala
- 2.-Oihan tropikal idorra
- 3.-Sabana. Zuhaiخوا-lurralde tropikalak (belardi eta sastraka tropikalak)
- 4.-Euri-oihan epela
- 5.-Baso epela
- 6.-Zuhaiخوا-lurralde epelak (belardi eta sastraka epelak). Estepa, panpa, txaparrala, ...
- 7.-Taiga edo baso boreala
- 8.-Tundra
- 9.-Basamortua


Ezaugarriak:

- Baldintza klimatikoak: Tenperatura + prezipitazioa → bioma
- Lurzorua
- Banaketa → landare banaketa sustraiak
- Landaretza: Egitura (altuera) eta biomasa ($\text{g}\cdot\text{m}^2$) (aeroa batez ere)
- Fauna: animalia motak
- Ekosistemaren funtzioak: (prozesuak)
 - Ekoizpena ($\text{g}\cdot\text{m}^{-2}\cdot\text{urte}^{-1}$): Hosto ekoizpena
 - N ($\text{g}\cdot\text{m}^{-2}\cdot\text{urte}^{-1}$): Xurgatutako kopurua
 - Ebapotranspirazioa ($\text{mm}\cdot\text{urte}^{-1}$): lurzorutik eta landaretik lurrundutako ur kantitatea, konparatu beste sistemekin edo ebapotrans. potentzialarekin.
- Asaldura

-Landaredia oso garrantzitsua da, izan ere, beraiek ematen dizkiete beren ezaugarriak ekosistemei.

-Ekosistema motak bereiztean, bioma edo landaredi-mota nagusiak bereizten dira lehorraldean.

↓ Number of animal species per biome/ecosystem




➤ **Prozesuak:**

-Ekosistemak hiru prozesuren arabera konparatzen dira:

1. Urtetako ekoizpena (lehen mailakoa) lurzoruaren gainetik (P) → Hostoa
2. Landaree urteko nitrogeno-hartzea eta erabilera (N)
3. Ebapotranspirazioa (AET).Lurrunketaren bidez lurzorutik atmosferara askatzen den uraren (lurrunketa) eta landareen ehunen bidez (transpirazioa) askatzen denaren batura da.

*Ebapotranspirazio potentzialarekin (PET), hau da, egongo litzatekeen ebapotranspirazioa mugarik gabeko ur kantitateekin konparatzen da.



Lurzorua:

-Materia bizia daukan gainazaleko geruza naturala da eta landare-estaldurari euts diezaioke.

-Materia organikoa (bizia/hila) zein ez organikoa (mineralak)

-Bizidun desberdinak: sustraiak, mikroorganismoak, etab.


-Goiko muga: aire atmosferikoa

-Beheko muga: sorrera arroka

-Lurzorua izango da zapaltzen dugunetik bizitza dagoen lekura arte.

-Konposizioa estandarra:

- % 45 minerala
- % 25 ura
- % 25 airea
- % 5 materia organikoa



Lurzorua eratzeko faktoreak:

- Sorrera arroka: arrokaren arabera lurra basikoagoa edo azidoagoa izango da.
- Topografia-Paisaiaren formak: desberdina da mendi puntan edo magalean egotea.
- Izaki bizidunak: lurzorua aireztatzen dute batzuk (zizareak)
- Klima
- Denbora

Lurzoruaaren ezaugarriak:

a) Ezaugarri fisikoak:

▪ *Kolorea:*

-Geologiak baldintzatzen du eta erraz ikusi erlazioa, adibidez, iluna bada materia organiko asko, gorriak burdin oxidoa edo sustratuaren koloreak ematen diona.

-Lurzoruan ematen diren prozesuak ematen diote kolorea: melanizazioa adibidez.

▪ *Ehundura:*

-Buztina, limoa eta harearen arteko erlazioa da, eta hauek lurzoruak ura eta mantenugaiak eusteko duen ahalmena mugatzen dute.



-Buztinak mantenugaiak hartzen dituzte inguruan karga negatiboa dutelako eta P, N, ...karga positiboa

-Harea > 0,02 mm

-Lohia edo limoa 0,002-0,02 mm

-Buztina < 0,002 mm

-Proporzioen arabera lurzoru, hareatsuak, buztintsuak etab ditugu.



22.3 IRUDIA. Bost lurzoru-chundura arrunten osiera. Adibide hauek puntu letradunak erabilia adierazi dira 22.2 irudian (EEBBetako Nekazaritza Saila).

- **Trinkotasuna:**
 - Lurzoru lehorren galkatze edo trinkotze maila adierazten du (lurzoru hezearen plastikotasun-maila eta lurzoruaren gogortasuna pixka bat heze dagoenean edo erabat lehor dagoenean).
 - Garrantzitsua da itxurazko dentsitatearekin lotuta baitago → sustraiak zailago/errazago sartu lurzorian (nahiz eta sustraiak sartzeko kapazitatea desberdina izan espezie bakoitzean).
- **Egitura:**
 - Lurzoruko zatikien agregakinak, lurzoruaren parteak antolatuta dauden era da.
 - Eraikin bat bezala:
 - ✓ Ura eta gasen mugimendua erraztu
 - ✓ Lurzoruko bizidunen aktibitatea errazten du,
 - ✓ Landare, animali eta mikrobio komunitateen bizitzarako beharrezkoak diren funtzioak betetzeko behar diren lurzoru prozesu asko errazten ditu.




FIGURA 22.5. Oinero mikroskopio baten bidezko irudiak, laura segia de cada longitud representada 25 cm (1 palgada) (División del Suelo del Norte, Departamento de Agricultura de EE.UU.).

- *Porositatea:*
 - Poro azalera edo lurzoru bolumena solidoen bidez beteta ez dagoenean.
 - Ura eta gasen mugimendua mugatzen du, hau da, sustrai eta bizidunen aktibitatea.
 - Garrantzitsua azalera eta banaketa (hareak Vs. buztinak)
 - Hoberena: eutsi ur nahikoa eta oxigeno eta CO₂ren difusioa bermatzen duena.
 - Gutxi egituratutako lurra % 35 poro azalera eta ehundura berebera % 65 ondo egituratua
- *Itxurazko dentsitatea (Bulk density):*
 - Masa (pisua)/ bolumena. Lurzoruaren konpaktazioari buruz informazioa ematen du zeren lurzoruaren bolumenean ura eta airearekiko aldatzen da.
 - Beraz, gero eta ur eta aire gehiago bolumen berdinean pisua txikiagoa, beraz, masa gutxiago.
 - Gehienetan 1-1,60 Mg/m³ inguruan ibiltzen da.
 - Harea-Lohia/ hareatsua: 1,2/1,9 Mg/m³, hau da gero eta hareatsuagoa gero eta pisu handiagoa.
 - Harea eta limoak nahastuta daudenean, trinkotasuna eta kohesioagatik, egituratuagoak (blokean) dira eta gutxiago sartzen dira leku berberean
 - Basoetan elurra, sustraiak handitu 1,55 Mg/m³ (metatu egiten da eta balioak handitu).
 - Lurzoru buztintsu-lohitsuan → Bulk density > 1,55 Mg/m³ denean sustraiak ezin dute lurrean sartu
 - Lurzoru hareatsuan sustraiak lurrean ez dartzeko BD > 1,74 Mg/m³
- *Lur-ura erlazioa:*
 - Lur-ura (%) lurzoruak daukan ura
 - Bi modutara ematen da: masarekiko edo bolumenarekiko, beti %
 - Lurzorua hartu, pisatu, lehortu eta berriro pisatu.
 - Desberdintasuna da zeukan ura
 - Grabitate ura: Euria egitean, urez gainezka egongo da baina lehenengo 2-3 egunetan galtzen duen ura da (75 μm diametroa baino handiagoko poroetan dagoena)
 - Lurzoruko kapazitatea: Lehenengo egunetan galdutako uarren ondoren geratzen den ura da (75 μm diametroa baino txikiagoetako)
- *Aireztapen-aireberritzea:*
 - Gasen elkartrukea da
 - Lurzoruko bizidunen beharrak: oxigeoa sartu eta CO₂a ateratzeko (batez ere sustraiak baldintzatu)
 - Zerk mugatzen du?

- Poroen azalera osoa
- Zuloen banaketa (erregularra izatea hobeto da)
- Urez beteta dagoen aire poroen partea
- *Temperatura:*
 - Lurzoruaren berotasuna
 - Garrantzitsua: sustraien eta lurzoru bizidunaren aktibitatea, deskonposizio tasak, eta mantenugaietan uraren xurgaketan eragina duela.
 - Materia organikoa inorganikoa baino astiroago berotzen da, beraz, baso lurzoruak mugatu lurzoruko mineralen tenperatura Zerk mugatzen du? porositatea, ehundura, ura
 - Tenperaturaren arabera bizidunen aktibitatean desberdina da.
 - Hareatsua buztintsua baino gehiago berotzen da
 - Oso hotza bada, deskonposizio tasa jaitsi egiten da, bizidunak erdi lo daude
- b) *Ezaugarri kimikoak:*
 - *Katioien trukerako ahalmena:*
 - Katioak eusteko lurzoruak duen ahalmena
 - Buztinak eta materia organikoak mugatzen dute (CEC)
 - Sustraien azalera karga negatiboa dauka eta horrela katioiak hartzen ditu.
 - Sustraiak ere sustantzia organikoak askatu CEC errizosfera lortzeko.
 - Buztin partikulak inguruan O₂ ditu (karga -) eta karga + duten metabolitoak erakartzen ditu.
 - Horrela euriarekin ez dira lixibiatuko
 - *Materia organikoa:*
 - L geruza: Orbela, denbora gutxi lurrean, ondo nabaritzen da zein hosto diren (laginketan hartuko dugu)
 - F geruza (erdikoa): Deskonposizioa gertatzen den geruzan, mizelio eta sustrai finetan aberatsa. Oso zatituta baina jatorria ezagutu daiteke. Ilunago eta hezeago (dagoeneko mantenugaiak daude)
 - H geruza (humus): Trinkoagoa, ilunagoa eta hezeagoa. Materialak ondo deskonposatuak eta nahastuak egon daitezke lurzoruko mineralarekin.
 - *3 geruza hauek 0 geruzan daude.
 - *PHa:*
 - Mantenugaien erabilgarritasuna mugatzen du
 - Zenbat protoi dauden lurzorian adierazten du.
 - Baso aberatsenak tarteko PH balioetan daude
 - Lurzoru azidoak oso pobreak dira, izan ere [Al⁺³] igo egiten da.
 - Ondorioz, beharrezko katioiei lehia egiten die buztinaren azalerara itsatsita eta landareak ezin ditu xurgatu.

-Mobility = zein ahalmen duen landareak hostoak erortzean mantenugaia berreskuratzeko (PHaren arabera da).




Figure 11-5 Effect of soil pH on the relative availability of 12 different nutrients. (After Truog. Reproduced from Soil Society of America Proceedings, vol. 11, 1946, pp. 305-308, by permission of the Soil Science Society of America.)

TABLE 9.2 The Macronutrients, Their Biochemical Uses, Form of Uptake by Plants, and Whether They Have Been Shown to be Limiting to Plant Growth and Mobile Within Plants*

(After Salisbury and Ross 1978)

Element	Uses	Taken Up As	Mobility	Limiting?
Carbon (C), Hydrogen (H), Oxygen (O)	Carbohydrates and derivatives, basic building blocks for nearly all plant products	CO ₂ H ₂ O	Variable	See Chap- ters 6-8
Nitrogen (N)	Amino acids, proteins, enzymes, nucleic acids, chlorophyll	NO ₃ ⁻ , NH ₄ ⁺	High	Yes
Phosphorus (P)	Sugar phosphates (ATP, ADP), nucleic acids, phospholipids	H ₂ PO ₄ ⁻	High	Yes
Potassium (K)	Not structural, enzyme co-factor catalyzes protein formation; stomata; charge balance across membranes	K ⁺	Very high	Rarely
Sulfur (S)	Amino acids, proteins, enzymes	SO ₄ ⁻	Low	Very rarely
Magnesium (Mg)	Chlorophyll, enzyme cofactor	Mg ²⁺	Very low	No (but see chapter 25)
Calcium (Ca)	Crucial to membrane function; binds wood fibers together; stab- ilizes waste products in vacuoles	Ca ²⁺	Very low	No (but see chapter 25)

*Mobile elements are those that can be retranslocated by plants before leaf senescence. Elements such as sulfur and magnesium are somewhat mobile in plants but are rarely retranslocated due to excess availability in soils.

c) Ezaugarri biologikoak:

-Sustratu geologiko bizigabea izaki bizidunen bidez betetzen eta aldatzen denean lurzorua garatuta dago.

-Bizidunik gabe lurzoru baten parte fisikoak ez zuen ekoizpenerako baliorik izango

-Bizidunak euren lurzoru ingurumena sortzen dute

-Bizidunak: flora (mikro eta makro) eta fauna


-Bizidunek lurzoruko propietateak mugatzen dituzte, adibidez, zizareek aireztapena.

-Mikroflora: Ez animaliak, bakteria, aktinimizeteak, onddoak eta algak (hiltzen direnean [m.o] igo)

-Makroflora: goi mailako landareen sustraiak

-Fauna: sailkatzen da

tamainaren, bizitokiaren edo erlazio trofikoaren arabera



-Baso ekologian askotan erabiltzen diren bi termino, Mull eta Mor dira.

-Hauek 2 lurzoru mota adierazten dituzte:

Mull:

-Lurralde epeletan

-Materia organiko askoko lurzoruak dira.

-Lurzoruan bizidun asko

-Deskonposaketa-tasa altuak

-Hosto erorkorreko basoak

-Orokorrean baso onak direla esaten da.

Mor:

-Iparralderago kokatzen dira, hotz handiagoa egiten duen lekuetan.

-Lurzorua nahiko azidoa da

-Lurzoruan bizidun gutxi dago

-Deskonposaketa-tasak baxuagoak dira

-Koniferoen basoak izaten dira

-Ez dira hain baso onak

2.GAIA: BASOEN KUDEAKETARAKO OINARRIZKO NEURKETAK

1.-Parametro fisikoak:

- Zati honetan basoen kudeaketa ikusiko dugu ekoizpnen ikuspuntutik (egurgileena)
- Zuhaitzen artean lehiakortasuna ematen denez ikusi da azalera bakoitzak zuhaitz maximo bat jasan dezakeela eta hortik aurrera zuhaitz batzuk hil edo zuhaitz guztiak ez dira hazten (berdin geratu)

1. Altuera:

- Suunto klinometroaren bidez neurtzen da.
- Altuera modu kualitatibo zein kuantitatiboan neur daiteke
- Zehaztasunaren arabera denbora gehiago ala gutxiago erabiltzen da.
- Suunto klinometroak neurketa arin eta zehatzak egitea baimentzen digu
- Oinarri trigonometrikoa du
- Gaur egun klinometroek zuzenean altuera ematen dute
- Distantzia jakin batetik egiten dira neurketak (15-20 m-tatik)

h = altuera osoa


$\text{tag } \alpha$ = angeluaren tangentea

p = neurtzen duen pertsonaren altuera (begien neurri arte)

$$h = 15 \cdot \text{tag } \alpha + p$$

$$h = 20 \cdot \text{tag } \alpha + p$$

- Klinometroak neurtu eta ematen du altuera zuzenean edo angelua (α), ondoren tangentearekin eta goiko formulekin atera daitekeena.
- Honekin, zuhaitzaren altuera, adaburuaren altuera (1. Adar nagusitik hasita) neurtu daiteke.
- Adaburuaren oinaren zabalera jakinda, adaburu bolumena atera daiteke, ekoizpena bolumena zehaztuz.



- Zuhaitzaren bolumena berdina izan arren, biomasa desberdina izan daiteke.
- Izan ere \rightarrow bolumena \cdot dentsitatea = biomasa

2. Dentsitatea:

- Parametro honek espezie baten ugaritasuna ezagutzea baimentzen du.
- Zenbat indibiduo dauden azalerako.
- Unitateak \rightarrow zuhaitz/ m^2


D= dentsitatea
 N= Zuhaitz kopurua
 A= Azalera

$$D = N/A$$

-2 modu daude dentsitatea neurtzeko:

- Zoriz eremu txiki bat zehaztu (adibidez $10 \times 10 \text{ m}^2$) eta bertako zuhaitz kopurua kontatu. Ondoren, eremuaren azalera totalagatik (Ha) biderkatu. Baina errorea egon daiteke eremuko zuhaitzak ez badaude homogeneouski banatuta, multzokatuta.
- Eremuko puntu batzuk aukeratu, zoriz, eta bertan zaudenean lau zati berdinetan banatu. Zati bakoitzetik hurbilen dagoen zuhaitzaren distantzia (d) neurtu eta distantzia guztien batuz bestekoa egin. Azkenik beheko formularen bidez dentsitate totala izango dugu:

$$D = \frac{A}{d^2}$$



3. Diametroa:

- Zinta metrikoarekin neurtzen da.
- Lurzoruaren gainetik 1,3 metrotara neurtzen da \rightarrow Bularraren altuerara
- baso ekologian asko erabiltzen den neurria da.
- Oinarri-azalera eta enbor bolumena neurtzeko erabiltzen da
- Landare hazkuntza ikusteko neurketa-partzela finkoetan denboran zehar neurri errepikatuak har daitezke (neurketa puntuak markatzea behar beharrezkoa da).

D= diametroa
 P= Zirkunferentziaren perimetroa
 $\Pi = 3,1416$

$$D = P/\Pi$$

- Sastraka edo zuhaixken kasuan lurzoruaren mailan neurtzen da (enborraren hasieran).
- Diametroa garrantzitsua da zuhaitzen heldutasun maila neurtzeko, nahiz eta diametro handienak ez duen esan nahi zuhaitz zaharrena beti, lurzoruaren baldintzek mugatzen baitute hazkuntza.

4. Oinarri-azalera (OA):

- DBH (Bularraren mailako diametroa) daukan zirkunferentzia baten azalerari deitzen zaio.
- Zuhaixketan diametroa lurzoru parean.
- Unitatea: M^2/ ha

$$OA = \Pi \cdot (D^2/4)$$

$\Pi = 3,1416$

D= Diametroa (DBH)

-Especie zuhaizkaretan edo zuhaixkaren bolumena estimatzeko balio du.

-Leku konkretu baten egur errentagarritasunaren estima suposatzen du.

5. Enbor-bolumena:

-Egur bolumen uztagarria oinarri azalera eta zuhaitzen altueraren arabera da.

Bol= Enbor bolumena

OA= Zuhaitzaren oinarri azalera

H= Zuhaitzaren altuera


0.7= Haritzaren itxura-koefizientea*

0.6= Pinuaren itxura-koefizientea*

Enborrak ez dira zuzenak eta especie bakoitzarekin errore estandar bat gehitu behar zaio.

$$\text{Bol} = \text{OA} \cdot h \cdot 0,7 \text{ (haritza)}$$

$$\text{Bol} = \text{OA} \cdot h \cdot 0,6 \text{ (pinua)}$$



2.-Parametro biologikoak:

-Indizeak oso tresna baliagarriak dira landaredia neurtzeko

-Ikerlari batzuen iritziz informazio trinko gehiegi eta esanahi gutxi dute

-Kasu batzuetan landaredi datuak lantzeko modu bakarra dira.

-Kontuz!

- Especie aberastasuna (S): especie edo talde konkretu batean dagoen especie kopurua.
- Dibertsitate espezifikoak: Especie kopurua kontuan hartzeaz gain indibiduo kopurua eta aberastasuna hartzen du kontuan. 20 dibertsitate indize desberdin baino gehiago daude.

- Dibertsitate-indizeak:

-Indize desberdinak daude eta egoera batzuetan batzuk adierazgarriagoak izango dira eta beste batzuetan besteak.

a) *Shannon-Weaver:*

-Indize honek zenbat espezie eta zein proportziotan ageri diren hartzen du kontuan.

-Gertatu daiteke, 2 leku desberdinetan espezie kopuru berdina egotea baina batean espezie dominatzailearekin eta bestean ez.

-Garrantzi berdina ematen dio agertzen den espezie bakoitzari, beraz, sentikorragoa da espezie arraroetan gertatzen den aldaketak antzemateko.

-Logaritmoaren efektuak espezie nagusien garrantzia gutxitzen du.

-Espezie guztiek pisu berdina dute.

-Espezie aberastasuna (S): zenbat espezie desberdin dauden adierazten du.

*Espezie ez arrunten estalduran aldaketa ematen bada indize hau da hori sumatzeko honena

b) *Simpson:*

-Indize honek garrantzi handiagoa ematen die espezie arruntenei eta hauen aldaketekiko sentikorragoa izango da.

-Dominantziaren kontzeptua.

$$D = \frac{\sum n_i(n_i - 1)}{N(N - 1)}$$

n_i = i espeziearen indibiduo kopurua

N = Indibiduo kopuru osoa

Dibertsitatea $D_s = 1 - D$

-Simpsonen indizea igo ahala dibertsitatea jaitsi egiten da.

$$D_s = 1 - \frac{\sum n_i(n_i - 1)}{N(N - 1)}$$

-Espezie dominatzaileetan ematen den fluktuazioak antzemateko indize onena da.

c) *Pielouren indizea ekitabilitatea:*

-Proporzioen arteko berdintasuna adierazten du

-Dagoen espezie kopuruaren arteko ekitabilitatea gero eta antzekoagoa bada, dibertsitate handiagoa egongo da.

-Dominantziak dauden adierazten du.

$H_{\max} = \ln S$

S = espezie aberstasuna

$$J = H'/H_{\max}$$

d) *Egitura-dibertsitatea:*

-Basoetan dibertsitatea geruzaka nerutzea interesgarria da

-Izan ere, baldintza desberdinak eman daitezke geruza bakoitzean eta presio desberdinak.

-Geruzak:

➤ 0-20cm (belarra)

➤ 20cm-1m (sastraka/zuhaixka)

➤ 1-2m (zuhaitzak)

➤ > 2m (zuhaitzak)

-FHD (Foliage Height Diversity Index)

-Altueraren arabera dibertsitatea nola aldatzen den ikus daiteke.

-2 aukera daude:

1. Baso desberdinetako H begiratzea geruzaka $\rightarrow H' = \sum p_i \ln p_i$

P_i = geruza bateko estaldura/ estaldura osoa

2. Eremu bateko espezie bakoitzaren estaldura kalkulatzeko $H' =$

$$-\sum \sum p_{ij} \ln p_{ij}$$

i espeziearen proportzioa j geruzan

-Batu espezie bakoitzaren estaldura (%) geruza desberdinetan

-Batu espezie guztien estaldura totala

-Espezie baten estaldura/ espezie guztien estaldura totala \rightarrow emango digu espezie hori agertzeko probabilitatea eremuan

• Kidetasun-indizeak:

-Komunitateak konparatzeko erabiltzen dira, esate baterako, baso naturalak eta landaketak.

a) *Sorensen indizea:*

-Erabiliena da espezien presentzi/ausentzia bitartez komunitateen arteko konparaketak egiteko.

-Konparatu daitezke 10 hariztien arteko espezie desberdinak, baina gehien interesatzen dena, pibudi-harizti konparaketak dira.

-Ea zeinetan dagoen espezie gehiago eta zein espezie agertzen den batean eta bestean ez.

-Horretarako baso mota bakoitzeko erreplikak batzen dira, nahiko antzekoak direla onartu eta gero konparatu \rightarrow eman zein espezie % berdin dagoen

K= Kidetasuna

A= Espezie-kopurua A komunitatean

B= Espezie-kopurua B komunitatean

C= Komunitate bietan dauden espezie-kopurua

$$K = \frac{2C}{A + B} \cdot 100$$

b) *Jaccard indizea:*

-Sorensen indizearen antzekoa

$$IJ = (C/A + B - C) \cdot 100$$

c) *Morisita indizea:*

-Kidetasuna adierazten du

-Kontuan hartzen ditu zein proportziotan agertzen diren espezieak.

-Batez ere estalduarekin erabiltzen da, ez banakoak.

-Hala ere, ikerketetan ez da indize oso erabilia.

aN = ale kopuru osoa A komunitatean
 bN = ale kopuru osoa B komunitatean
 DN_i = i espeziearen kopurua A komunitatean
 EN_i = i espeziearen kopurua B komunitatean

$$da = \sum \frac{DN_i^2}{aN^2}$$

$$db = \sum \frac{DN_i^2}{bN^2}$$

d) *Profil-diagrama:*

- Basoaren profil bertikala zein horizontalaren marrazkia da.
- Landaredi komunitateen deskripzio fisionomikoak dira, horizontal zein bertikalak izan daitezke.
- Lurzoruko baldintzak adierazi ditzakete.
- Zuhaitz eta zuhaixken hazkuntza markatzen da gehienetan
- Adibidez: Ereku baten berreskurapen prozesurako erabili daitezke.




Figura 11. Diagrama de perfil de vegetación del Cerrado en el Parque Nacional Noel Kempf Mercado: a) perfil horizontal, b) perfil vertical. Nótese que la superficie muestreada para realizar este perfil es de 50x10 m. Los números en cada árbol deben coincidir con los números asignados a cada especie (Mostacedo y Killeen, 1997).

3.-Leku-kalitate indizeak:

-Ezaugarri topografiko, klimatiko, edafiko eta biotikoek (genetikoek) zuhaitzen hazkunde eta basoen garapena baldintzatzen dute.

Leku-kalitatea edo leku-gaitasuna:

- Lurralde zehatz batek daukan gaitasuna edo ahalmena, zehaitz espezie baten ekoizpena bultzatzeko.
- espezie bakoitzak indize desberdina izango du.
- Aurreikus daiteke zein espezie landatu behar dugun ekoizpen egokia lortzeko.
- Batez ere basogintzan (pinudi, eukalipto) erabiltzen den indizea da.
- Indibiduen baldintza genetikoetan eragina duten faktore topografiko, biotiko, klimatiko eta edafikoen batura da.

-Faktore hauek garapenean eragina dute eta hazkuntza erantzun konkretua sortarazten dute.

-hau da, leku kalitate indizea eremu batean landarediak garatzeko duen gaitasuna da, azalera konkretu baten ekoizpen gaitasuna bertan dauden landaredi komunitateen arabera.

-Leku kalitatea neurtzeko indize desberdinak erabiltzen dira

a) Zuhaitzen bolumena:

Kalkulatzeko:

-Bolumen osoa azalera unitateko, adinaren arabera.

-Zuhaitz handienak kontuan hartzen dira bakarrik, ekoizpen-gaitasuna neurtzen delako.

Eragozpenak:

-Espeziearen ekotipoa (beste herrialde batetik ekarri bada, seguru aski baldintza berdinetan ez zen haziko).

-Landaketaren dentsitateak

-Kudeaketak

*Zuhaitz tamainak baldintzatuko dituzte goiko faktore guztiek.

b) Ingurumen-ezaugarriak:

-Leku desberdinetako zuhaitz altuenean neurriak hartu.

-Gero beste zenbait faktore neurtzen dira

-Oso konplexua da lortzea

-Erregresio anizkuneko ekoazioak egiten dira

h = menpeko aldagaia

X_s = aldagai askeak (ingurumen-ezaugarriak)

Honelako ekuazioak egiten dira:

$$\log h = b_0 + b_1X_1 + b_2X_2 + \dots + b_nX_n$$

B_0, b_1, \dots = erregresioko konstanteak

$X_1 = 1$ /adina

$X_2 \dots X_n$ = hazkunde-baldintzatzaileak

Hazkunderako baldintzatzaileak:

-Landaketaren ezaugarriak: dentsitatea, estaldura maila, ...

-Lurzoruko ezaugarriak: sakonera, testura, pH, N, P, gazitasuna, ...

-Hosto-ezaugarriak: Hostoen N-kontzentrazioa, beste elementuak, ...

-Ezaugarri fisiografikoak: aldapa, altitudea, norabidea

-Klima-faktoreak: tenperatura minimoak, prezipitazioa, haizea, ...

c) Espezie adierazleak:

-Kalitate oneko espezieak erabiltzen dira, lekuaren kalitatea neurtzeko:

- *Athyrium* sp., *Dryopteris* sp.: iratzeak dira eta baso helduen lurzoruetan ageri dira (hezetasuna ↑, Ehundura ona, [m.o] ↑, ... → hosto erorkorreko basoak)

- *Hypericum androsaemum* → trifolium baten antzekoa
- *Oxalis acetosella*
- *Calluna vuňgaris*
- *Erica vagans*
- ...

d) Zuhaitzen altuera leku indizea (LI):

- Basogintzan gehien erabiltzen den indizea da
- Zuhaitzen altueraren arabera eremuak sailkatzen dira (txarra/ona)

Neurketa:

- Zuhaitz handien batez besteko altuera adin batean (espeziearen heldutasunean) hektarea bateko 100 zuhaitz (handienak) neurtzen dira.
- Adibidez: $LI = 20$ (25 urterako), Honek esan nahi du 25 urtetan zuhaitzek 20 m izango dituztela
- Urte kopurua eta altuera jakinda, estimatu daiteke zenbat handituko den.
- Zuhaitz batek ez badu bere adinerako estimaturiko altuera hartzen, gerta daiteke lurzoruaren kalitatea eskasa izatea.
- Leku-indizeak altuera/adina kurbatan azaltzen dira

Metodoaren abantailak:


- Altuera eta bolumena erlazionatuta daude
- Altuera eta adina errez neurtzen dira

Altuera ez da dentsitatearekiko (oso) menpekkoa

- Indize kuantitatiboak dira, beraz konparagarriak

- Landaketa guztietan badaude zuhaitz gainerakorrak (altuenak) eta hauek beste zuhaitzei iristen zaien argia mugatzen dute. Izan ere hauek kalitate oneneko izpiak xurgatzen dituzte eta behera kalitate eskasagoak pasatzen dira.
- Dominantzia gero eta handiagoa argi kalitate eskasagoa pasatzen da.

Gainerakorra




Nagusituta

Figura 12. Representación gráfica de las formas de posición de copa.

-Kurbak gaztetatik banatzen dira, beraz, gaztetatik jakin daiteke zein kalitateko lurzorua dugun

Figura 1: Curvas de Altura Dominante y clases de Calidad de Estación para una edad de referencia de 25 años



kazioak:

- Adin bateko altuera jakinda, nolako lekua den jakin daiteke
- Lekua zein den badakigu, ze altuera lortuko den jakin daiteke
- Lekua zein den eta altuera jakinda, adina jakin daiteke
- Lekua zein den eta adina jakinda, altuera jakin daiteke

Taula:

ALTURA [m]	EDAD [años]											ALTURA [m]	
	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14		
0,5	15												0,5
0,7	16												0,7
0,9	17	15											0,9
1,1	17	15											1,1
1,3	18	16											1,3
1,5	19	17	15										1,5
1,7	20	17	15										1,7
1,9	20	18	16										1,9
2,1	21	18	16	15									2,1
2,3	22	19	17	15									2,3
2,5	23	20	17	15									2,5
3	25	21	19	17	15								3
3,5	26	23	20	18	16								3,5
4	28	24	21	19	17	15							4
4,5	30	26	23	20	18	16	15						4,5
5	32	28	24	21	19	17	16						5
5,5	34	29	25	23	20	18	17	15					5,5
6		31	27	24	21	19	17	16					6
6,5		32	28	25	22	20	18	17					6,5
7		34	29	26	23	21	19	18					7
7,5		35	31	27	24	22	20	18					7,5
8			32	29	26	23	21	19					8
8,5			33	30	27	24	22	20					8,5
9			35	31	28	26	23	21					9
9,5				32	29	26	24	22					9,5
10				33	30	27	26	23					10
10,5				34	31	28	26	23					10,5
11					32	29	28	24					11
11,5					33	30	27	26					11,5
12					34	31	28	26					12
12,5					35	32	29	27					12,5
13						33	30	28					13
13,5						34	31	29					13,5
14						35	32	29					14
14,5	CALIDAD:							33	30				14,5
15	Baja	IV	IS<20 m.					34	31				15
15,5	Regular	III	20<=IS<25 m.					35	32				15,5
16	Buena	II	25<=IS<30 m.						33				16
16,5	Superior	I	IS>=30 m.						34				16,5

- Taula asko egin dira altuera eta adina erlazionatzen dutena.
- Zuk neurtu nahi duzun zuihaitzaren adina edo altuera sartuz espero beharrekoa jakin daiteke.
- *Hala ere gerta daiteke asalduren ondorioz esperotako eta errealitatea berdina ez izatea.

4.-Popilazioen dinamika: Yoda-ren legea

- Landare populazio baten, espezieen arteko lehiak, ale-kopurua eta tamaina baldintzatzen duen faktore garrantzitsuenetarikoa da.
- Adin berdineko landare populazio baten, lehiaren ondorioz hilketa eragiten da eta landare aleen tamaina emendatu egiten da.
- Aleen tamaina eta populazioaren dentsitatea guztiz erlazionatuta daude
- Lagungarria da basoen kudeaketarako

Automurritzketaren arauak (Harper & McNaughton, 1962; Yoda et al., 1963) esaten du:

- Landare populazio batean, landareen biomasa eta landare kopurua azalera unitateko erlazionatuta daude.
 - Erlazio honen oinarrian dagoen kontzeptua zera da: “leku guztiek gehienezko biomasa edukiera dute: Zama-gaitasuna”
 - “Landare populazioa muga horretara hurbiltzen denean, zuhaitz hazkundeak aurrera jarraitzen du soilik ale kopurua murriztuz gero”
- *Gaur egun ikusi da ez dela uste zen bezain zehatza

Dentsitatearen eragina:

- Bizidunen biziraupena eta ugalkortasuna ez dira nahikoak populazioaren kopurua azaltzeko.
- Aleen tamaina ere oso eragile garrantzitsua da.
- Lehiaketa: Populazio-dentsitatea, aleen tamaina eta hilkortasuna

Yodaren legea:

$$W = C \cdot N^{-k}$$

$$K = 3/2$$


$$\log W = \log C - K \cdot \log N$$

W= landarearen biomasa (batz bestekoa)

N= dentsitatea

C= konstantea. Populaziorako ingurumen eta genetikaren arabera

*Leku-kalikalitatearekiko menpekotasun txikia espezie bakoitzarentzat!



Populazio eta tamainaren arteko erlazioaren

malda $\rightarrow m = 3/2 = 1,5$

Gaur egun ikusi da ez dela 1,5, aldakortasun dagoela 1,2 $\rightarrow 1,8$

-Hala ere, espezie bakoitzak jasankortasun desberdina daukate, beraz, malda desberdina

-Dentsitate altuetan izurriak eta suteak gehiagotan jasaten dituzte.

-Adibidez: 120 zuhaitz/ha \rightarrow bolumena: $0,08 \text{ m}^3$ /zuhaitz

Basogintzan:

Inausketak noiz egin behar diren zehaztu daiteke, basoak aurrera egiteko

Relative Density = Dentsitate erlatiboan oinarritzen da Yodaren legea

RD = Dentsitatea/Tamaina-dentsitate maximoa

Irudia:

1 puntua:

Dentsitatea: 750 z/ha

Bolumena: $1,48 \text{ m}^3$

Maximoa: 790 z/ha (Zuhaitz guztiak $1,48 \text{ m}^3$ balira gehienez 790 indibiduo egongo liratezkela)

RD = $750/790 = 0,95$

RD = 0,15 \rightarrow Adaburuak itxita daude baina soilguneak geratzen dira, zuhaitzak lasai bizi dira, baina basogintzaren ikuspuntutik, lurzorua potentziala ez da aprobetxatzen.

RD = 0,65 \rightarrow Espezie batzuk nagusitzen hasten dira eta ekonomikoki ez zaigu hori interesatzen, denak berdinak izatea nahi dugu ustiatzeko. Beraz inausketak egin behar dira dentsitate handiegian daudelako

RD = $0,55 - 0,40 / 0,20 \rightarrow$ Landaketetan mantendu nahi diren balioak dira, dentsitate maximoaren erdia baino gutxiago. Lehiatzen dira baina ez da gainezartzen bat ere ez.

2 puntua:


RD = 0,5 inausketarik ez da egin behar

3 puntua:


Izango litzateke 1. puntuko dentsitatea erdira jaitsita:

RD = 0,5 $\rightarrow 375 \text{ z/ha} \rightarrow$ inausketarik ez litzateke beharko

RD < 0,3 dibertsitatea gora \rightarrow Gainontzeko zuhaitzei aukera ematen zaielako hazteko



Eremuak manten dezakeen dentsitate altuena,
efizientzia ekonomiko maximoa



3.GAIA: BIOMAK

1.-Oihan tropikala:

-Jungla hitzaz ere izendatzen da.

- Baldintza klimatikoak:
 - Urtean 2500 l/m³ euri egiten ditu.
 - Tenperaturak urte osoan nahiko kete mantentzen dira → 17°C-tik gora
 - Urte sasoi lehorrik gabeko eskualde tropikaletan hedatzen da.
- Lurzorua:
 - Lurzorua etengabe garbitzen da: silikatoak eta sustantzia alkalinoak galduz, erreketara.
 - Laterizazio prozesua nagusitzen da, eta E geruza aberatsa da aluminio eta burdin oxidotan → kolore marroi/gorria
 - Mantenugaietan lurzoru pobreak dira
 - Silikatoak ibaietatik galtzen dira eta ez da B geruza osatzen.
 - Deskonposaketa azkar ematen da eta ondorioz, sustraietatik berehala barneratuko da, biomasa asko sortuz.
- Banaketa:



- Ekuatorearen inguruan: 10° I-10° H
 - Amerika: Erdialdeko Amerika eta Amazonia
 - Afrika: Zaire, Afrikako mendebala eta Madagaskar
 - Indo-Malasia: Indiako mendebala, Asiako hego-ekialdea, Ginea berria eta Australia (Queensland)
- Landaretza:
 - Altuera handia lortzen dute, eta geruza askorekin.
 - 40-100 zehaitz espezie egon daitezke hektarea batean.
 - Landare gehienak iraunkorak dira.
 - Landareen hazkundera askotarikoa da:

- Iratzeak
- Epifitoak: Enborretan hazten dira, *Broweliaceae*, *Orchidaceae*
- Aihenak (landare igokariak) eta lianak (argiaren bila)

-Ekoizpena urte osoan dago.


-Enborren azalak finak izaten dira

-Zuhaitzak oso altuak direnez, errefortzua behar dute oinarrian ez erortzeko, kontrafuerteak → ohol sustriak

-Munduko ekosistemarik emankorrena eta biodibertsitate handienekoa da.

-Biomasa = 400 g/m^2

-Dentsitate handiko landaredia dago eta ondorioz geruzak antolatzen dira ≈ 5 geruza.



Geruzak izaten dira 40tik gorakoak (zuhaitz bakanak), 40-30 sabaia, 30-15, 15-5.

-Lurrazala nahiko garbia mantentzen da, ez delako argirik iristen, goiko zuhaitzetako haziak eror daitezke eta zuhaitz txikiak hazi.

-Zuhaitz altuetako bati zerbait gertatzen bazaio eta erortzen bada, beheko zuhaitz txikia azkar luzatuko da, argia iristen baitzaio → oihan tropikaletako prozesu berezia.

-Geruzapenak, faunaren dibertsitatea emendatzen du



• Fauna:

-Geruza desberdinetan baldintza desberdinak egongo dira eta bakoitzean txoko ekologiko desberdin bat, beraz, bultzatuko du espezializazioa → Biodibertsitatea ↑

-Eredu mutualistiko asko agertuko dira bertan.

-Intsektuak eta anfibioak dira nagusi.

-Ugaztunak eta hegaztiak ere:

- Kolore distiratsuak, soinuak
- Janaria: fruituak




- Ekosistemaren funtzioak:

- Ekoispin handia dute → Munduko ekosistemarik emankorrek dira.
- Nitrogeno xurgatze- eta birtziklatze-tasa handiak dituzte.
- Ebapotranspirazioa ere oso handia da eta potentzialetik ez da asko urruntzen.
- Orbela oso arin birziklatzen da.
- Mantenugai gehienak landareetan daude.

- Biomasa, ekoizpena, nitrogeno eta ebapotranspirazioa:

- Biomasa (B) = 400 g/m²
- Ekoizpena (P) = 20 g/m²
- Nitrogeno xurgapena (N) = 160 **unitateak!**
- Ebapotranspirazio erreala (AET) = 1600
- Ebapotranspirazio potentziala (PET) = 1600



Oxisol → aluminio eta burdin oxidoak

- Asaldura:

- Basoa mozten denean sastraka tropikalak eta sabanak agertzen dira.
- Biomasa eta dibertsitate handiena lurzoru pobreenetan izan da.
- Gizakiaren eragina oso handia da.
 - Nekazaritzarako: zuhaitzak mozten dira eta 2-3 urtez nekazaritza lantzen da. Lurra pobretu azkar eta utzi
 - Egurgintzarako: Espezie bereko zuhaitzak oso sakabanatuta daude eta egurra lortzeko inguruko beste espezieetako zuhaitzak bota behar dira
 - Azpiegiturak: Errepideka eta egitean, ekosistemetan ertz efektua handitzen da. Hau da, ertzean eta barnekaldean dauden baldintzak ez dira berdinak izaten → ekosistema mugatua dute.

Amazoniako ibai arroa: Hego Amerikako azaleratik % 40


- Ur bolumena: 210.000 m³·s baino gehiago
- Arroak 7100 Km luzera dauka, Andeatatik Atlantikora.
- Estatu desberdinak zeharkatzen ditu, Bolivia, Brasil, Colombia, Ecuador, Guyana, Peru, Surinam eta Venezuela
- Amazoniako oihanak munduko ekoizpen primarioaren %10 egiten du eta ekosistemen karbonotik %10 metatzen du (1,1 x10¹¹ t C)
- Ekosistema honetan ura ez da arazoa izango.
- Geruza desberdinetako hostoek ura geldiaraziko dute eta berriro lurrunduko da lurzorura iritsi gabe.
- Honi esker higaduraren eta lixibiazio prozesuaren eragina murriztuz.



-Baso batek euriaren %50 ere gera dezake.


2.-Oihan tropikal idorra:

- Baldintza klimatikoak:
 - Tropikoetako leku batzuetan garai lehorra dago, eta garaiko baso tropikalak agertzen dira.
 - Urteko euri-kantitatea metro-karratuko 1500 eta 2500 litro bitartekoa izaten da (aurrekoa baino gutxiago)
 - Tenperatura epela urte osoan zehar.
- Lurzorua:
 - Laterizazio-prozesua nagusitzen da (Lurzoruak asko garbitzen dira, baina aurrekoak baino gutxiago).
 - E geruza gorria, burdina eta aluminioan aberatsa osatzen da.
- Landaretza:
